

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Luzez oroituko den martxoaren 8a

Andoainen eta Urnietan, jendetzak bat egin zuen deialdiarekin / 6-10

## Pentsio duinen alde, Donostiara joateko deialdia

"Denok batera erretiro pentsio duinengatik" izenburupean, Andoaingo eta Urnietako adinekoek larunbatean Donostiara joateko deialdia luzatu dute / 16



Infantil eta kadete mailako Gipuzkoako judo txapelketa, asteburu honetan Urnietan / 12

Klarinete jaialdia Andoainen eta Zinegoak zikloa Urnietan, asteburuko kultur hitzorduak / 11



Eskuz binakakoan Gipuzkoako txapeldun dira Urnietako jubencil eta senior mailakoak / 13

 **URNIETA**  
**MARTXOAK**  
**16-18 MARZO**  
**19:00**  
SAROB  
ARTE ESZENIKOEN GUNEA

**Zinegoak**  
www.zinegoak.com  
BILBAO  
LGTB FILM  
FESTIVAL

# SAHARAAREN

## ALDEKO

# BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean  
2018 / 3 / 25 eguerdiko 12:00etan

Unai Agirre      Beñat Gaztelumendi  
Sustrai Colina      Unai Muñoa  
Aitor Mendiluze      Oihana Iguaran

Gai jartzailea: Ion Beloki

Sarrerak salgai: Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats

**6.00€**

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



# Ur hornidura eta sarea hobetzeko hitzarmena

Añarbeko Urak eta Urnietako Udalak hitzarmen mugagabea sinatu dute, zeinaren bitartez udalerriko ur hornidura sarea zabaldu eta azpiegitura lanak hobetuko diren. Ergoieneko ur zikinak bideratzeko milioi bat euroko inbertsioa iragarri dute



Jorge Segurado Hirigintza alorreko zinegotzia, Mikel Pagola Urnietako alkatea, Maije Zelaia Añarbeko Uren Mankomunitateko presidentea, Joxean Ercilla Añarbeko Urak mankomunitateko gerentea eta Mitxel Corcuera zuzendari teknikoa. AIURRI

## Erredakzioa URNIETA

Hitzarmenaren sinadura ekitaldian, Zelaia Añarbeko lehendakariak erakundeen arteko elkarlana nabarmendu nahi izan zuen: "Mankomunitatea herrialde ezberdinen artean elkarlanean aritzeko sortu zen, eta hitzarmen honekin ere elkarlana sustatuko da Añarberen eta Urnietako Udalaren artean."

Ingurumena izan zuen hizpide, jarraian: "Oria, Urumea eta Oiartzun ibaiak Añarbeko mankomunitatean zehar igarotzen dira eta ibai horien berresku-

rapenean lan handia egiten ari gara. Hitzarmenarekin saneamendu sarea hobetzeko aukera dugu. Ergoien industriguneko ur zikinak Lekun errekarara doaz, eta helburua ur zikin horiek Donostiako Loiolan dagoen araztegi bideratzea da". Egitasmo hori potolo samarra da, Ergoien industrigunetik Erratzu aldera igaro behar baitira ur zikinak, eta tartean errepidea dago. Hori dela eta, lan horien kostua handi samarra izango da. Zehazki, milioi bat eurokoa. Añarbeko mankomunitateak ia bere oso-

tasunean ordainduko du, kostu osoaren %83a bere gain hartuz.

Pagolak esker ona adierazi zien, "akordioarekin, ur sarea hobetu eta zabaldu egingo baita. Etorkizun batean populazioaren %98ak Añarbeko ur edangarria kontsumitu ahal izango du. Eskertza ere Ergoien aspaldikoa zen arazoari irtenbidea emango zaiolako. Obra konplexua da, obra zaila, Iparlaten dugun lotunearekin bat egin behar delako". Perforazio bertikala delako teknika erabiliko dute, Añarbeko Ercillak adierazi zuenez.

## Kultur aniztasuna aldarrikatzeko ospakizuna

Igande honetan egun osoko ekitaldia Egape ikastolan, Aballarri gurasoen elkarteak antolatuta

## Erredakzioa URNIETA

Egape ikastolan kultur aniztasuna kontutan hartu nahi dute, ezberdinen arteko elkarbizitza balioan jarritz. Igande honetarako egun osoko ospakizuna antolatuta dute.

Jaki ezberdinak probatzeko aukera izango da, eta baita herrialde ezberdinetako tradizioari erreparatzeko ere. Izan ere, norberaren herrialdeko jantzi tipikoekin agertzeko deialdia luzatu dute antolatzaileek.

Ospakizunak Egapeko ikasleen musika emanaldiarekin hasiko dira, eguerdiko 12:30ean. Bitartean, familiek bazkarirako ekarri beharreko janaria eraman beharko dute. 14:00ak aldera jaki tipikoen dastaketa izango da. Edariak eta haurrentzako janaria doakoak izango dira. Bazkalostean, 16:00etatik 18:00ak arte, eskulanak, antzerkia, karaokea eta diskofesta izango dira.

Bezperan, kultur aniztasuna ikasgeletan landuko dute.



CupCake tailerra. GAZTELEKUA

## Haur eta gazteentzat tailer eta ikastaroak apirilean

Ludotekak eta Gazte Informazio Puntuak eskaintza zabala iragarri dute datorren hilabeterako

### Olatz Lasa URNIETA

Gazteentzako hiru tailer antolatu dituzte ludotekak eta Gazte Informazio Puntuak elkarrekin apirilak 6an, 13an eta 20an, 18:00etatik 19:30ak arte GIP-an. Honako tailerrak izango dira, hurrenez hurren:

Lehen egunean, musika tailerra eskainiko dute Lappa taldeko kideek, eta musika taldea nola erabiten den kontatuko dute. Beraien istoriaren berri ere emango dute, eta instrumentuak dituztenei eramateko deia luzatu diete.

Bigarren egunean, webguneak sortzeko tailerra zuzenduko du Kode eskolak. Parte-hartzaile bakoitzak bere ordenagailu eramangarria eraman beharko du. Eta azken egunean, marrazketa tailerra antolatu dute Judas Arrietarekin. Hark proposaturiko ariketa bat egingo dute. Horretarako beharrezkoak diren materialak bertan egongo dira.

Izena emateko epea zabalik dago plazak amaitu arte. Horretarako, Gazte Informazio Puntura hurbildu behar da, edota Udalaren webgunetik zuzenean ere egin daiteke.

### Tailer gehiago, ludotekan

Apirilaren 3tik 6ra tailer gehiagotan parte hartzeko aukera egongo da ludotekan. Izena emateko epea martxoaren 16an amaituko da. Lekaion edota Udalaren webgunean egin behar da izen-ematea. Plaza mugatuak daude, hortaz, lekurik egon ezean


zozketa egingo da martxoaren 19an. Apirilaren 3an bi tailer egongo dira. Bata, Trakamatraka musika tailerra 2010-2012 tartean jaiotakoentzat, 11:00etatik 12:30etara. Bestea, Kimikarin zientzia esperimentuak 2007-2009 tartean jaiotakoentzat, 11:00etatik 13:00etara. Biak Lekaion izango dira. Hurrengo egunean, magia tailerra Hodei magoaren eskutik, 2007-2012an jaiotakoentzat, 11:00etatik 13:00etara Lekaion. Apirilaren 5ean sukaldaritza tailerra izango da Gaztelekuan ordu berean eta adin-tarte berarentzat. Apirilaren 6an, zirku tailerra egongo da nahi duen ororentzat San Joan plazan, 16:30etatik 18:30etara.

### Gaztelekuko ekintzak

Udaberriko oporretarako zenbait ekintza antolatu ditu Gaztelekuan herriko gazteentzat, martxoaren 26tik apirilaren 6ra bitartean. Helburua gazteen aisia eta denbora librean ekintza osasuntsuak burutzea da, hala nola, Irrisarri Land abentura parkera irteera, Ilargi Berdea kirol gunera irteera, CupCake txapelketa edota eskulan tailerra. Izena emateko epea martxoaren 19tik 22ra bitartean zabalik izango da Gaztelekuan, 17:00etatik 19:30etara. Plazak mugatuak dira, gaindituz gero zozketa egingo da martxoaren 23an. Bestalde, martxoaren 19an gurasoentzako bilera informatiboa antolatu dute, 19:00etan Gaztelekuan.

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ZULUETA ANDOAINGO UDAL GOBERNU TALDEKO BOZERAMAILEA

## Haur parkeak estaltzeko prozesua

Baditugu 2018. urterako aurrekontuak. Akordio ona egin dugu EH Bildu, Ganemos, Irabazi eta atxikitu gabeko zinegotziaren artean. Udalak jarri ditu aurrekontu hauen berri emateko bitartekoak, eta laister Udal aldizkaria etxean jasoko duzuen, ez naiz horretan luzatuko. Baina akordioaren barruan badago nabarmendu nahiko genukeen puntu bat. Asko hitz egin da azken urteotan haur parkeak estaltzearen beharraz, eta ados agertu izan gara beti proposamen horrekin. Bestelako lehentasunak zeudela pentsatu izan dugu ordea. Ur hornidura sarean egin beharreko berrikuntzak eta konponketak, adibidez, eta inbertsio horiek parkeak estaltzeko dirurik ez bideratzera behartu gaitu. Aurten ordea gaiari heltzen hasteko aukerak ditugu. Eta egin dugun akordioari esker, Udalak 200.000 euro bideratuko ditu haur parkeak estaltzeko. Diru honekin, parke bat edo bi egin ahal izango den, aukeratzen den parkearen eta honek behar duen irtenbide teknikoaren arabera izango da. Eta hori da hartu behar dugun lehen erabakia. Eta hartu behar dugu diodanean, denon artean hartu beharreko erabakia izango dela esan nahi dut. Zein haur parke estaliko dugu? Zein haur parke estaliko zenuke zuk? Hartuko dugu erabakia denon artean?

Orain, erabaki hori nola hartu zehaztu behar dugu. Modu erraz eta azkar batean, bere botoa eman nahi duten andoaindar guztiek aukera izan dezaten. Eta espero dugu, apirillean zehar ariketa hori egin eta azken erabakia izatea. Beraz, hasi solasean

zuen inguruan, hasi pentsatzen zure esku balego zer egingo zenukeen.

Galdera oso zehatza izango baita: "Andoaingo Udalak 200.000 euro bideratuko ditu haur parkeak estaltzeko, zuk zein estaliko zenuke?".

**UDALAK 200.000 EURO BIDERATUKO DITU HAUR PARKEAK ESTALTZEKO**

www.aiurri.eus

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia  
• Postontzia

## SAREAN

### "Udalerri lagunkoi baten alde" kanpainaren aurkezpena

WWW.ANDOAIN.EUS

Beterri-Buruntzako udalen lankidetzaren baitan, eta Lanbideren diru laguntzarekin, Andoaingo Udalak abian jarri du txakurren jabe bideratuta dagoen kontzientziario kanpaina berria. Kanpaina txakurren kakak jasotzen ez dituzten jabe bideratua dago. Honako hau da kanpainaren lema: "Udalerri lagunkoi baten alde, jabe eredugarria nahi dut, konpromisoa hartuko al duzu?". Kanpainarekin, txakurra duen pertsonak txakurrik ez duenarekin izan ditzakeen gatazkak gutxitzea nahi dute. Horretarako garrantzitsua da txakurren jabeak eredugarri izatea. Baina, zer da jabe eredugarria izatea? Txakurra bere gain



Varella, Carrere, Jericó eta Rodríguez kontzientziario kanpainaren aurkezpenean.

hartzea erabakitzen den momentutik bere betebeharren erantzule izatea. Txakurra osasuntsu edukitzea, txertoak ematea, kaka egiten duenean jasotzea eta baita kalean txakurrarekin joaten jakitea ere. Norberak bere txakurra asko maite badu ere, txakurrak gustuko ez duen

biztanlea ere errespetatu behar baita. Kanpaina honetan Udaltzaingoak zer esan handia izango du, Ramón Varella ingurumen teknikariarekin eta Maider Jérico hezitzailearekin batera. Auzoz auzo, hiru aste ezberdinetan, Jericó informazioa banatzen eta argibideak ematen izango da.

## POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus


**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaleak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ  
 ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM  
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
 ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:  
 EUSKO INJURIAZIA GOBERNUA VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia  
 ZIURTAGIRIA: Bitkarn  
 BABESLEAK: Iritzia, Postontzia  
 AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

## PROTAGONISTAK

# "Klarinetearekin maiteminduta gaude"

IEPA QUARTET ANDOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLAKO KLARINETE LAUKOTEA



Oria, Requeijo, Otxoa, Iturriondobeitia eta Nistal Basteroko Udal musika eskolan, Emezabal irakaslearekin. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Aizpea Oria, Irene Requeijo, Eider Iturriondobeitia eta Patricia Nistalek Iepa Quartet osatuko dute. Larunbat honetan Klarinete jaialdian parte hartuko dute.

### An irish stew joko duzue...

Patricia Nistal: Irlandako bi abesti tradizionalen konbinaketa da. Erritmo lasaian hasi eta gerora bizitu egiten da, jendea dantzan jartzeko moduan ia. Klarinetearen soinu goxora egokitu dugu guk.

## Jendaurrean urduritasunik sentitzen al duzue?

Irene Requeijo: Nire kasua berezia izan da. Umetan, publikoaren aurrean aurreneko aldiz jotzea tokatu zitzaigunean, oholtzara igo ezinik geratu nintzen, blokeatuta. Harrezkero normaltasunez jo izan dut. Egia esan, urduritasunik handiena oholtzara igo aurretik sentitzen da. Inoiz galdu behar ez dena tentsioa da; premiazkoa da edozein instrumentu ondo jotzeko.

## Zer dauka klarineteak beste instrumentuek ez daukatena?

Eider Iturriondobeitia: Orain zazpi-zortzi urte aukeratu genuen, eta berarekin maiteminduta segitzen dugu. Oso instrumentu berezia da, doinu goxoa duena. Edozein musika banda entzuten dugunean, gure belarriak bertan jotzen ari diren klarineteetara joaten dira. **Zuk, Ander, azken unean jakin duzu ezingo duzula parte hartu...** Ander Otxoa: EGAKo azterketa eta jaialdia batera

egokitu zaizkit! Ilusioz nengoen, batez ere orain gutxi heldu diodalako klarinete baxuari. Gainera, antzeko jaialdietan parte hartu izan dugu, eta beti dago zer ikasia beste eskoletako klarinete jotzaileei ikusita.

## Zu, Aizpea, Ander ordezkatzera etorri zara.

Aizpea Oria: *Klariando Quartet* taldearekin jo ostean, Anderren hutsunea beteko dut; bi laukoteekin igoko naiz oholtzara, beraz. Eider, Patricia eta Irenekin batera entsegu bakarria egin ahal izan dut, gaurkoa hain zuzen; abestia ezaguna egiten zait eta ondo moldatu naiz. Taldearen izenarekin ere ez dago arazorik; izan ere, "Iepa" taldekideen izenen lehen hizkiekin osatu baitzuten.

## Duzun eskarmentuagatik, zer nolako zailtasuna dauka laukote batek?

Mikel Emezabal: Laukotea lau ahotsetan banatzen da, bakoitzak bere rola dauka eta erabatekoa izan behar da euren arteko koordinazioa. Mikrobanda bat da, azken batean.

Musika banda batean bezala, une jakin batean instrumentu batek hartzen du protagonismoa, eta orduan besteei laguntzea (armoniak, erritmoak...) dagokie.

## HAU ERE BADUGU!

## Andoaingo manifestazioa



Martxoaren 8ko deialdiek askorengan eragina izan zuten, eta haren oihartzuna ia gizarte osora iritsi zen. Andoainen goizean egin zen manifestazio burrunbatsua arrakastatsua izan zen. Nafarroa plaza inguruan Aiurrik grabatu zuen bideoak ehunka bisitaldi izan ditu, deialdiak piztu zuen ikusminaren adierazle. Antzeko gauza gertatu da martxoaren 9ko Basteroko erakusketarekin eta martxoaren 10eko martxa-kalejirarekin. Berdintasunaren aldeko ekimenek interes handia piztu dute internet sarean.

## Argazki zaharren xarma



*Andoain Paseando* Facebook orrialdean Aita Larramendi kaleko argazkia ikusgai ipini zuten, duela egun gutxi. Eta askorentzat iraganera bidaia egitea bezalakoa izan da. Argazki zaharrek xarma berezia dute. Ildo berean, Itxaso Mendiluzek Basteron antolatu duen erakusketak arrakasta handia izan du. Hainbestera da ikusmina, erakusketak apirilaren 14ra arte zabaltzea erabaki dutela. Iraganeko argazkien bitartez, maiz itzalean geratu diren lanbideei ikusgarritasuna eman nahi izan die. Nola ez, oharkabean pasa ziren ogibide horietan emakumeak nagusi ziren. Erakusketaren irekierako bideoa ikusgai dago Aiurri.eus gunean.

## ITURRI ONETIK

## Santakruzak

Aurtengoan, Andoaingo jai ezagunak maiatzaren 2tik 6ra ospatuko dira. Azken urteetan Santa Krutz egunarekin amaitu badira ere, aurtengoan santuaren ospakizuna jaiaren hasiera aldera izango da. Bezperan, maiatzaren 2an hasiera emango diote ohikoa den txupinazoarekin eta Zumeatarra elkarteko danborradarekin. Maiatzaren 3an Ikurriñaren jaitsiera eta ezpata dantza, eta maiatzaren 4tik 6ra kontzertuak, kirol jarduerak eta kalean jaiatzeko gozatzeko hamaika aukera gehiago. Kartela egiteko lehiaketa martxan dago.

## GORA ETA BEHERA



## Andoaingo Asanblada Feminista

Deituriko mobilizazioetara herritarren erantzuna eskasa edo zabalza izango dela jakin gabe, sentsibilizazio lan hori guztia egin behar izaten da. Andoaingo Asanblada Feministako kideek lana gogotik egin zuten aurreko egunetan eta, ziur, pozarren egongo direla deialdi ezberdinek jasotako erantzun zabalagatik. Arrakasta handi hori, hein handi batean, eurei zor zaie.





Rosi Agirre eta Marisol Fernandez, Izorne Tena eta Miren Dominguez, Nora Mendizabal, Maite Olmeño, Miren Erkizia, Marta Diez, Susana Cencillo eta lurrean eserita Ainhoa Zabala eta Ihintza Oiartzabal, aurtengo omenduak. AIURRI

# Zortzi emakume, hamaika emozio

Elkartasun keinu ugari izan ziren ibilbide osoan zehar, omenduen eta herrikideen artean. Andoain urtez urte osatzen ari da egunerokoan eredu direnen emakumeen zerrenda. Herria herri egiteko ezinbestekoak diren emakumeak

## Xabier Lasa ANDOAIN

Kalejira Bastero plazan hasi eta Goikoplazan amaitu zen, jardue-  
ra anitz izan zituen ekitaldiare-  
kin. Jone Larrañagak, aurtengo  
omenduak taula gainera igo  
aurretik, bakoitzaren merituek  
azaldu zituen.

## Rosi Agirre, Goyita Zubillaga eta Marisol Fernandez

“Zentroa andoaindarren errefe-  
rentzia izan zen ia hiru hamar-  
kadatan. 60ko hamarkadan jaio  
zen Rosi bezalako emakumeen  
bultzadaz, Joxepi Orbegozo zu-

zendariaren eta beste hainbat  
emakumeen eskutik egin zuen  
bidea, eta bitarteko baliagarria  
suertatu zitzaizen emakume an-  
doaindarrei, jasaten zuten gi-  
zarte matxistarekiko loturak  
hautsi zitzaizen”.

## Miren Erkizia

“Non beharra, han Miren. Es-  
katu gabe pauso bat aurrera  
ematen duen emakume horie-  
takoa da. Auzoan, herrigintzan,  
elkartasunean lanean beti. Berea  
bezalako historia txikiak egiten  
dute historia handi”.

## Susana Cencillo

“Ekintzaile eta kulturaren bul-  
tztatzaile nekaezin. Enpresari  
eta ama. Denak batera egiten  
ditu eta denekin batera ari da  
Susana herria eta berdintasuna  
musika soinez jazten”.

## LARUNBATEKOA KALEJIRA JENDETSUA, ALAIA ETA HUNKIGARRIA IZAN ZEN

## Maite Olmeño

“Irribarre bat, hitz lasaigarriak,  
gertutasunezko keinu bat... Bal-  
dintzarik gabeko babesa eta  
erreferentzia Andoainen gine-  
kologiako zerbitzua erabili du-  
ten emakume guztientzat. Ema-  
kume andoaindarrek egin zuten  
borrokari esker lortu zen  
zerbitzu hori; bertako  
langileek profesional-  
tasun handiz egin dute  
lan bertan, eta orain,  
jubilazioa hartzera  
doan Maitek adierazi  
digan bezala, geuri ego-  
kitzen zaigu defendatzea”.

## Izorne Tena eta Miren Dominguez

“Ohituraren kontra egin dute.  
Aitarengandik semeenganako  
lotura inertziatzekoan, eurek ere  
hor daudela esan dute. Libre  
erabaki dute aisialdian nahi  
zutena egitea: ehizan aritzea”.

## Ainhoa Zabala eta Ihintza Oiartzabal

“Enpresari txikia eta  
ama handia. Janari  
denda martxan jarri,  
lana eman eta lan lo-  
tuari emana. Oso baldin-

tza gogorretan ama izatea era-  
baki du berak. Aita espetxean  
urruti zegoela ekarri du Ihintza  
txikia. Ez da txikia bizkar gai-  
nean daraman zama. Pisutsua  
da, baita ere, Ihintzak daraman  
motxila”.

## Marta Diez

“Borrokalaria. Beste ma-  
kina bat emakumeren  
adibidea da, minbizia-  
ren aurka borroka egin  
behar izan dutenena,  
gazteak izanik. Zapia  
buruan, bere inguruko  
babesa, bere ume txikiak  
hazteko erabaki sendoa... eta  
irribarre bat. Hori etxek izan  
dira bere borrokarako tresna,  
eta hementxe daukagu geure  
arte, inoiz baino biziago”.

## Nora Mendizabal

“Kirolaria eta pilotaria. An-  
doaingo Gazteleku pilota esko-  
lako neska bakarretari-  
koa. Zaletasunak eta  
gogoak eraman zuten  
txikitatik frontoietara  
eta horretan jarraitu  
du tinko, bere ingu-  
ruan neska bakarra  
izan denetan ere”.





Bertsoekin eta dantza ikuskizunarekin osatu zuten Goikoplazako ekitaldia. AIURRI



Ainhoa Zabala eta Ihintza Oiartzabal, lekukoa daraman Maite Olmeñorekin batera.



Zuena emakume taldea Bastero plazan. Eguerdian Oianumen bazkaria egin zuten. AIURRI



Gaszte talde batek performancea egin zuen Goikoplazan. AIURRI



Animazioa eta umorea ez ziren falta izan, kalejira osoan zehar. Argazkian Emeki-emeki taldeko Maite Martin eta Ane Amondarain. AIURRI



Marta Diazen familia osoa hurbildu zen ekitaldira. Pozarren zegoen. AIURRI



Izorne Tena eta senideak, ekitaldiaren osteko argazkian. AIURRI

# Aurreikuspenak gainditu zituen greba deialdia

Greba deialdiaren aurreko egunetan egin zen sentsibilizazio lan handiari esker, ehunka izan ziren Andoainen eta Urnietan kalera irten eta planto egitea erabaki zuten emakumeak. Luzaro gogoan hartuko den mobilizazioa izan zen

## Erredakzioa ESKUALDEA

Ikasleak, irakasleak, langileak, adinekoak..., gizarte osoarengan eragina izan zuen greba deialdiak. Baita erakundeetan ere. Andoingo Udaleko bozeramaileen batzordeak, esaterako, grebarekin bat egitea erabaki zuen. Urnietako Udalak, bere aldetik, elkarretaratzea deitu zuen San Juan plazan eta aspaldiko jende kopuru handiena erakartzea lortu zuen.

Azken ordura arte ez ziren erabakiak hartu, baina azkeneko grebak jarraipen zabala izan zuen sektore ezberdinetan. Irakaskuntza, merkataritza, ostalaritza..., grebak jarraipen zabala izan zuen. Bereziki, Andoainen.

Etxe barruko lanen banaketa desorekatua, soldaten bereizketa, emakumezkoek gauez eta etxerako bidean bizi duten beldurrezko egoera..., bazegoen arrazoi bat edo beste gizartean berdintasunaren alde oihu egiteko premia, eta hori ondo baino hobeto islatu zen martxoaren 8an. Inklusiboa eta jai girokoak bilakatu ziren hitzordu guztiak.

Aiurri astekariak greba deialdiaren gertuko jarraipena egin zuen, Andoingo eta Urnietako hitzordu guztien argazki eta bideo bildumak sarean ipiniz.



Ostegun arratsaldea, Zumea plazan. ASANBLADA FEMINISTA



Andoingo asanbladakoak eta kultur parkeko langileak pankarta banarekin. AIURRI



Dozenaka lagun hurbildu zen Goikoplazara, ostegun goizean. AIURRI



Kale Nagusian behera Zumea plazaraino iritsi zen manifestazio jendetsua. AIURRI


## Martxoaren 8a Aiurri.eus gunean



Martxoaren 8a Andoainen, Urnietan



Erakusketa Basteron



Martxoak 8, 8 emakume

**AIURRI.EUS**

**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**







Andoingo Asanblada Feministak lan eskerga egin zuen aurreko asteetan. Arrakastaren gakoetakoa eurena da. AIURRI



Aldarrikapena egiteko erakusleihoa edertu zuten hainbat dendarik.

## Jarraipen zabala merkataritzan



Tabernariak, dendariak..., askotxo izan ziren grebarekin bat egin zutenak.



Haur, gazte eta adineko herrikideen topagune bilakatu zen Urrietako Udalak martxoaren 8rako San Juan plazan deitu zuen elkarretaratzea. Txalo artean amaitu zen bilkura jendetsua. AIURRI



Batzuk eguerdi partean itxi zuten negozioa, beste batzuk arratsaldean.



Berdintasunaren alde Urrietako Egape ikastolako ikasle, irakasle zein guraso taldea kalejiran ibili zen. San Juan plazan, emakumeei paperezko lore more bana jarri zieten paparrean. Plazan pankarta eskegi zuten. EGAPE

# Oroitzapenez beteriko erakusketa

Andoingo Udalak, Itxaso Mendiluzeren bitartez, emakumeen lanbideen inguruko erakusketa antolatu du Bastero kulturguneko erakusketa gelan. "Herria herri bilatu zuten Andoingo emakumeak" izenburupean, ikusmin handia piztu du

## Amaia Senperena ANDOAIN

Martxoaren 9an ireki zituzten erakusketaren ateak eta jendeak gogotsu hartu zuen. Andoaindar asko gerturatu zen bertara eta argazkiz beteriko bi paretak askoren oroitzapenak azalera-tzeko balio izan zuten. Baita ahaztutakoak berriz ere gogora ekartzeko ere. Gainera bertara gerturatu zirenak, argazkietara gerturatu eta inguruko istorioak entzuteko aukera ere izan zuten. Erakusketak izan duen harrera ona dela eta, zabalik izango da datorren apirilaren 14ra bitarte.

## Martxoaren 8a hizpide

Basteroko irekieran hainbat emakumek bezperako greba deialdia hizpide izan zuten. Adin tarte ezberdinetako emakumeak baturik ikustea hunkigarria izan dela dio Amaia Agirrek. Mariaje Otamendik mugarriztat hartu zuen aurtengoa, herrian inoiz ikusi gabea izan baita.



Herrikide ugari hurbildu zen erakusketaren irekiera ekitaldira. AIURRI

## Bisitarien iritzia



### Amaia Agirre

"Erakusketa zoragarria iruditu zait. Horrelakoak guztioi gogoko zaizkigula esango nuke eta gertuko adiskide zein senideak ikusteko aukera izanik, zer esanik ez. Gainera momentu batean batzuegana gerturatu eta beraien historia entzuten egon naiz, eta oso polita izan da".



### Mariaje Otamendi

"60 urteak atzean utzi ditugunok izugarri disfrutatzen ari gara gure haurtzaroko esperientziak gogoratzean. Zumea plazan jaiotakoa naiz eta Itxasok laguntza eskatu zigunean gure esku hartze apala eskaini genion. Izugarri disfrutatu genuen prozesu horretan".



### Ana Mari Aranburu

"Niretzat oso erakusketa erakargarria izan da. Herritar asko etorri zaizkit gogora. Argazki batean gainera nire jaiotetxea agertzen da eta polita izan da erakusketan hura ikustea".



### Nati Prieto

"Ardo saltzaile baten bulegoan lanean ibili nintzen eta erakusketan ere azaltzen naiz. Politu da horrelako erakusketa bateko parte izatea. Gauza asko gogoratzen ditut eta oso garai onak izan ziren haiek".

## Lagunarteko partida Ubitarten

Andoingo Udaleko jarduera fisiko eta kirola lan sailak eta Euskalduna futbol taldeak antolatu zuten norgehiagoka, martxoaren 8ko egunaren harira. Lagun arteko giroan jokatu zen partida, eta bost golekin gozatzeaz gain, jokaldi politak ikusi ahal izan zituzten Ubitarte futbol zelaira hurbildu ziren futbol zaleek. Norgehiagoka nahiko parekatua izan zen arren, jokalaririk ohien eskarmentua eta atearen aurrean asmatzeko abilitadea nagusitu ziren azkenean, zelaian. 4-1 irabazi zuten partida.



Egungo jokalariren taldea: Alaitz Mikelarena, Alazne Valle, Leila Chueca, Lidia Pacheco, Mainer Arabaolaza, Mara Lasa, Maria Carril, Olatz Igerategi, Zuriñe Venero, Amets Vazquez, Noa Sanchez, Jessica Gonzalez, Oihane Vega eta Maria Aizpurua. Aritz Valdemoros, Achraf Yerrou eta Ruben Piron entrenatzaileen agindutara jokatu zuten. Jokalaririk ohien taldea: Nahia Artola, Ixiar Eizmendi, Ane Eizmendi, Leire Aizpurua, Maialen Santa Krutz, Janire Perez, Andrea Luis, Nerea Hernandez, Idoia Aznar, Itziar Altzuguren, Maialen Diez, Maialen Oizartzabal, Alba Murillo, Irene Fuentes, Marta Ollakarizketa, Nagore Huizi eta Miriam Rua. AIURRI

# Klarinete laukote jaialdia, larunbatean Basteron

Klarinetearen hotsa nagusituko da Andoainen, larunbatean. Esti Mujika kultura zinegotziak, Mikel Emezabal klarinete irakasleak eta Claudia Alduncin klarinete ikasleak bilkuraren xehetasunak eskaini zituzten, Basteron bertan

## Xabier Lasa ANDOAIN

Mujika zinegotziak "ekimen interesgarritzat" jo zuen jaialdia: "Andoingo musikagintzan urrats berri bat da jaialdia, eta Udalak eskura dituen balibideak jarriko ditu instrumentu hori lantzeko eta ezagutzera emateko". Jaialdiak "Andoingo kultur bizitza aberastu" nahi duela adierazi zuen Emezabalek. Basteroko oholtzan hemezotzi laukotek lehiaketan parte hartuko dute: "Ikusleen artean sakabanututa egongo dira epaimahai-kideak, eta honako irizpideak edukiko dituzte kontuan: jarraera, originaltasuna, trebetasuna eta kalitatea". Azkenik, Sapere Aude Sinfonietta elkarteari eskerrak eman zizkion, jaialdia antolatzeke garaian eskainitako laguntzagatik.

## Andoingo sei laukote igoko dira taula gainera

*Klariando Quartet:* Maddi Elizasu, Aizpea Oria, Leire Barquero



Larunbatean 10:30ean hasiko da jaialdia, Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan. 13:00tan sari banaketa ekitaldia eta Klarinet.eus-en kontzertua, Auditorioan. AIURRI

eta Xabier Ucin; *Kuarteto Kalabera:* Oier Moreno, Alex Castro, Iosu Mujika eta Axe Arrikarte; *Hasi Berriak taldea:* Oihane Telletxea, Ane Escribano, June Lizartza eta Martin Sanchez; *Friends taldea:* Ekiñe Lasa, Mai-

tane Urkola, Unai Ulanga eta Urko Lizaso; *Iepa Quartet:* Eider Iturriondobeitia, Patricia Nistal, Irene Requeijo eta Aizpea Oria; *Lautan Quartet:* Claudia Alduncin, Arantxa Irigoras, Jose Luis Perez eta Josu Otxotorena.

## Andoingo musikari gazteak saritu dituzte

Andoingo musikari gazteak sariak besapean dituztela itzuli dira Bilbotik, joan zen asteburuan Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioan ospatu zen Euskadiko Musikari Gazteen XII. Lehiaketan parte hartu eta gero.

Jarduera ezberdinetan saritu zituzten: Haize egurra A mailan, Mirari Ucinetik bigarren saria jaso zuen; Haize egurra B mailan, Xabier Ucinetik, bigarren saria; Haize metala B mailan, Jokin Jauregik bigarren saria; talde instrumentalak A mailan, Claudia Alduncinek, bigarren saria; eta azkenik, Manex Olazagirrek ohorezko aipamena. Argazkian Bilbon saritutako hainbat ageri dira: Manex



Olasagirre, Ucin, Alduncin, Ucin eta Jauregi. AIURRI

Olazagirre, Xabier Ucin, Claudia Alduncin, Mirari Ucin eta Jokin Jauregi sariak eskuetan dituztela.

Mirari Ucinetik saxofoia jo zuen, Jokin Jauregik tronpeta,

Manex Olazagirrek perkusioa eta Claudia Alduncinek eta Xabier Ucinetik klarineta. Musika ikasketaren munduan ospe handiko saria da Bilbon antolatzen dena urtero.



Kanadako Marguerite film laburra ostiral honetan eskainiko dute, Saroben. ZINEGOAK

## Zinegoak, aniztasuna lantzen duen zinema jaialdia Urnietan

Martxoaren 16an eta 18an proiektatuko dira filmak, eta tartean bi saritu: *Marguerite* eta *Au-delà de l'ombre*

### Olatz Lasa URNIETA

Ohiko arauetatik kanpo geratzen diren pertsonengan jartzen du azpimarra Zinegoak Zinema Jaialdiak; hots, gizarteak ezartzen dituen eredu fisiko, identitario, sentimental edo sexuarekin betetzen ez duenengan. Zinema eta kultura ardatz hartuta gizarte eraldatzeko eta gizarteko aniztasuna ezagutarazteko tresna moduan funtzionatzen du Jaialdiak, eta honako gaiak jorratzen ditu: orientazio sexuala, generoa, haurtzarora zein nerabezaroa edota transexualitate.

Martxoaren 16an eta 18an zehar 7 film ikusi ahal izango dira Saroben, 19:00etan hasita. Sarrera doakoa da.

### Martxoaren 16ko film laburrak

Lehen egunean 6 film labur proiektatuko dira, jatorrizko hizkuntzan eta gazteleraz ez denean, euskarazko azpitoluekin:

- The migrant mixtap (Kanada).
- Tailor (Brasil).
- Marguerite (Kanada).
- Little potato (AEB).
- Tarde para el recreo (Euskadi).
- Ornitorrinco (Espainia).

Marianne Farley-ren *Marguerite* film laburra bi sari irabazi ditu Zinegoak Zinema Jaialdian. Bata, Publikoaren Saria Film Labur Onenari, eta bestea, Lesbianismo eta Genero Epaimahaiaren Aipamen Berezia.

### Martxoaren 18ko film luzea

Nada Mezni Hafaiedh zuzendararen *Au-delà de l'ombre* izeneko film luzea proiektatuko da martxoaren 18an. Jatorri tunisiarra du, eta LGTB kolektiboaren inguruan oinarritzen da istorioa. Jatorrizko hizkuntzan proiektatuko da, gaztelaniazko azpitoluekin.

Film Luze Dokumental Onenaren Saria jaso du, Dokumentalen Nazioarteko Epaimahaiaren eskutik.



*Au-delà de l'ombre* film luzeko irudia. Igandean eskainiko dute, Saroben. ZINEGOAK

# Euskal Herriko neguko txapelketa

**IGERIKETA** Marka hobekuntza eta domina ugari eskuratu ditu Buruntzaldea IKT taldeak: 11 urre, 10 zilar, 16 marka hobekuntza, 6 errekor taldean eta 3 marka erreleboka. Espainiako Udako txapelketarako gutxieneko bi marka lortu dituzte

**Erredakzioa** BURUNTZALDEA

Martxoko lehen asteburuan Euskal Herriko Neguko txapelketan aritu ziren Buruntzaldea IKT taldeko infantilak. Sei igerilarik hartu zuten Tolosako Udabal igerilekuan: Nerea Santos, Aintzane Sarobe, Paula Sevillano, Lander Sorozabal, Ainhoa Martin eta Leire Martin. Guztiek maila bikaina eskaini zuten, jarrera lehiakorra eta aldi berean sutsua erakutsiz.

Nerea Santos urnietarra edeki aritu zen asteburu osoan, eta marka pertsonalak hobetzea lortu zuen. 400 librean 5:07:46 minutuko denbora egin zuen bere marka 6 segundutan hobetuz; 200 librean 2:25:25 minutu bere marka 5 segundutan hobetuz. 800 librean 10:04:67 denbora egin zuen, 400 librean 4:58:32). Bere marka guztietan hobekuntza egin du.

Emaitza bikainak lortzen ari dira, orokorrean, infantil mailako neskek.



Buruntzaldea taldeko infantilak Euskal Herriko Neguko Txapelketan. BURUNTZALDEA IKT

**Estatu mailan aritzeko gutxieneko marka lortu dute**

Estatu mailako udako txapelketarako gutxieneko bi marka lortu dituzte taldekako jardueretan. Zehazki, 4x200 eta 4x100 librean, lehendik ziurtaturik zuten 4x100 lau estilokoaz gain.

Hauek dira Sarobek, Sevillanok eta Martin ahizpek lortutako markak: estilo libreko 4x200 proban: 8:51:98; 4x100 proban: 4:06:60 eta lau estiloetako 4x100 proban: 4:31:00. Taldeak igerilariak zoriondu nahi ditu, lortutako emaitzak ikusita.

## Finalaren itzuliko partida, Irunen

Aldundia txapelketako finalaren joaneko partidaren, kadete mailako neskek Bidasoa taldea garaitu zuten (24-18). Balio handiko garaipena da, 6 goleko abantaila ematen dielako. Baina, batez ere, azken hiru partidatan garaitu ezin izan zuten aurkaria gaingaitu zutelako. Oraingoan, alde handiarekin. Bereziki aipagarria izan zen zaletuen babesa. Finalaren itzulikoa jokatu behar da orain. Klubak urnietarrei deialdia egin die, Urnietako jokalariek animatzera joan daitezten. Larunbatean izango da itzuliko partida, 17:30ean Irunen.



UKE

## Gipuzkoako Judo txapelketa, larunbat honetan Urnietan

**JUDO** Larunbat honetan ospatuko da Gipuzkoako Judo txapelketa kiroldegian, 16:30etatik aurrera. Kadete eta infantil mailako 150 neska-mutilek hartuko dute parte txapelketan, eta horietatik 9 dira urnietarrak. Hauek dira infantil mailan borrokatuko duten judokak: Alaitz Karrera, Julen Pagola eta Yeraí Martínez. Kadete mailan, berriz, Amets Karrera, Oier Duran, David Blanco, Joseba Gomez, Adrian Garcia eta Bachuki lehiatuko dira. Jorge Segurado zinegotziak azaldu duenez, "txapelketak judoa gertuagotik ezagutzeko balioko du".



Judoko txapelketaren aurkezpena. AJURRI

## Duatloi Sprint distantzia

**ATLETISMO** Aimar Sukunza eta Andoni Illarramendi Zumeatarrak taldeko kideak Gipuzkoako txapelketan dira 'Duatloi Sprint distantzia' delako proban. Joan zen martxoaren 3an burutu zen proba Eibarren, Gipuzkoako Txapelketarako baliagarri izan zena. 150 kirolarik hartu zuten parte lasterketan, eta korrika nahiz bizikletan aritu behar izan zuten.



Aimar Sukunza. TRIATLOI FEDERAZIOA

## KARTELDEGIA: SASKIBALOIA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOIA	
SENIOR MAILA	
EMAITZA	
Ganbara-Internacional	70-79
SAILKAPENA	
1 Zarautz	38 puntu
11 Ganbara	27 puntu
12 Bosteko Irauli B	26 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:30 Oiartzun-Ganbara / Lar, 17	
KADETE MAILA	
EMAITZA	
Hernani-Ganbara	48-45
SAILKAPENA	
1 Ama Guadalupekoa	4 puntu
5 Ganbara	2 puntu
6 Atletico Urkitza-Tecnun	2 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
09:00 Ganbara-Goierri / Lar, 17	

ARETO FUTBOLA	
SENIOR MAILA	
EMAITZA	
Euskalduna-Hirukide	3-6
SAILKAPENA	
1 Hirukide	43 puntu
4 Oiartzun	35 puntu
5 Euskalduna	34 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
22:30 Idiazabal-Euskalduna / Ostir, 16	
ANDOINGO TXAPELKETA	
EMAITZAK	
Gorostidi-Olajauna	5-1
Gorostidi-Olajauna	5-2
Academia GF-Ekaitz	3-5
Academia GF-Txalaka	1-1
Akerbeltz-Irunberri	4-3
Lanbroa-C. Extreño	1-9
Ekhia-Powerade	5-3
Dad Kutxa-H. Extreño	6-1
Ganbara-Ekaitz	2-2

# Trinketean banaka eta eskuz binaka txapeldun

**PILOTA** Julen Loitegi senior mailan eta Aitor Aldunberri jubenil mailan txapeldun dira eskuz banaka nahiz binaka. Pala motzean galdu egin dute Udaberriko finala Iribarre eta Garagorrik, txapelketa gazi-goza biziz

## Erredakzioa URNIETA

Emozioz eta pozez beteriko asteburua izan da UKE taldeko pilotariena. Hiru final jokatu dituzte, eta horietatik bitan gailendu dira urnietarrak.

Gipuzkoako eskuz binakako trinketeko Txapelketan, senior mailan, Garikoitz Arizmendik eta Aitor Aldunberrik irabazi dute Tolosa eta Aurreraren aurka (40-29). Partida guztian zehar 8 tantu aurretik joan ziren urnietarrak. Inflexio puntu txiki bat izan zuten 34-28 tantuan, tolosarrak geroz eta hurbilago ikusten baitziren. Garaipen horri esker Aldunberrik bitan jantzi du txapela, eskuz banaka eta binaka, alegia.

Senior mailako UKE taldekoak ere fin ibili dira. Villabonako Behar-Zana taldearen aurka irabazi dute Julen Loitegik eta Eñaut Esnaolak (40-10). Aurrelari den Loitegik erritmo bizia ipini zion partidari aurkariak arnasestuka utziz; eta Esnaolak



Jubenil eta senior mailan Gipuzkoako txapelketa lortu dute, binakakoan. UKE

soiltasun eta segurtasun handia erakutsi zuen partida osoan zehar aurrelariari lagunduz. Loitegik ere bi txapela eskuratu ditu, eskuz banaka eta binaka.

UKE-k zoriondu nahi izan ditu bere pilotariak egiten duten esfortzu eta ahalegin guztiagatik.



**Udaberri Txapelketako finala** Udaberri Txapelketaren amaiera gazi-goza eduki dute Urnietako pala motzeko Ekain Iribar eta Xabier Garagorri pilotariak. 0-8 irabazten joan ostean, altzatarrak martxa hartu eta markagailuan gora egin zuten (40-27).



AIURRI

## Gipuzkoako Gomazko paletako finalean

**PALA** Gazteleku pilota eskolako Koldo Poncek eta Xabier Mujikak 22 urtez azpiko finala jokatu dute, igande honetan Ataunen Real Sociedad taldeko bikotearen aurka. Argazkian, bi finalistak hainbat taldekide eta prestatzaileekin batera Arrate

pilotalekuan. Goian, ezker eskuin: Manex Lete, Xabier Mujika, Xabat Amilibia, Eneko Peñalbo, Ander Perez eta Luis Mari De Miguel. Makurtuta, ezker eskuin: Aritz Eskudero, Mikel Arrieta, Xabier Iburguren, Josu Balerdi, Koldo Ponce eta Mateo Ponce.

## KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOA

### FUTBOLA

#### PREFERENTE MAILA

##### EMAITZAK

Sanpedrotarra-Euskalduna	<b>2-2</b>
Urnieta-Trintxerpe	<b>3-1</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>16:00</b>	Mundarro-Euskalduna / Lar, 17
<b>17:15</b>	Ostadar-Urnieta / Lar, 17

### ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

#### EMAITZA

Mundarro-Euskalduna	<b>0-1</b>
---------------------	------------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

<b>17:45</b>	Euskalduna-Trintxerpe / Lar, 17
--------------	---------------------------------

### IGOERA FASEA, NESKAK

#### EMAITZA

Ostadar-Urnieta	<b>1-4</b>
-----------------	------------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

<b>16:50</b>	Lagun Onak-Urnieta / Lar, 17
--------------	------------------------------

### KOPA, NESKAK

#### EMAITZA

Euskalduna-Hernani	<b>1-1</b>
--------------------	------------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

<b>18:30</b>	Oiartzun-Euskalduna / Lar, 17
--------------	-------------------------------

### JUBENIL MAILA, MUTILAK

#### EMAITZAK, IGOERAKO LIGAXKA

Lengokoak B-Urnieta A	<b>0-1</b>
Allerru A-Euskalduna A	<b>2-3</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>16:00</b>	Urnieta A-Allerru A / Lar, 17
<b>15:45</b>	Euskalduna A-Orioko / Lar, 17

#### EMAITZAK, KOPA

Segura Goierrri-Urnieta B	<b>2-1</b>
Euskalduna B-Ordizia	<b>2-1</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>12:00</b>	Lazkao-Euskalduna B / Iq, 18
<b>18:00</b>	Urnieta B-Billabona / Lar, 17

### KADETE MAILA, MUTILAK

#### EMAITZA, OHOREZKO MAILA

Euskalduna-Touring	<b>1-0</b>
--------------------	------------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

<b>10:00</b>	Hondarribia-Euskalduna / Lar, 17
--------------	----------------------------------

#### EMAITZAK, KOPA

Urnieta-Lizeoa B	<b>3-0</b>
Danena B-Euskalduna	<b>2-1</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK 4-7MUL.

<b>13:30</b>	Kostkas B-Urnieta / Iq, 18
<b>12:30</b>	Euskalduna-Intxurre / Lar, 17

### KADETE MAILA, NESKAK

#### EMAITZA

Intxaurdi B-Urnieta	<b>3-1</b>
---------------------	------------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

<b>14:00</b>	Urnieta-Orioko / Lar, 17
--------------	--------------------------

### ESKUBALOA

#### SENIOR MAILA, MUTILAK

##### EMAITZAK

Urola-Leizaran	<b>39-28</b>
Urnieta-Aloña Mendi	<b>32-21</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>19:00</b>	Leizaran-Soraluce / Lar, 17
<b>17:00</b>	Ormaiztegi-Urnieta / Lar, 17

### SENIOR MAILA, NESKAK

#### EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Urnieta-Ibaizabal	<b>19-30</b>
Leizaran-CB Urduliz	<b>37-23</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>13:00</b>	San Adrian-Urnieta / Iq, 18
<b>16:00</b>	BM Romo-Leizaran / Lar, 17

### JUBENIL MAILA, MUTILAK

#### GIPUZKOAKO TROFEOA

##### EMAITZAK

Urnieta-Leizaran	<b>30-23</b>
------------------	--------------

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

---:--	Elgoibar-Urnieta / Atzeratuta
<b>16:00</b>	Ordizia Orkli-Leizaran / Lar, 17

### JUBENIL MAILA, NESKAK

#### GIPUZKOAKO TROFEOA

##### EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Urnieta-Elgoibar	<b>21-22</b>
Bergara-Leizaran	<b>14-30</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

---:--	Urnieta / Atzeratuta
<b>16:00</b>	Leizaran-Ereintza / Lar, 17

### KADETE MAILA, MUTILAK

#### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

##### EMAITZAK

Bidasoa Irun-Urnieta	<b>26-25</b>
Leizaran-Hernani	<b>34-23</b>

Leizaran Horia-Bera Bera Laranja **20-27**

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>11:30</b>	Urnieta-Aloña Mendi / Iq, 18
<b>10:00</b>	Ordizia Orkli-Leizaran / Iq, 18
<b>12:30</b>	Usurbil-Leizaran Horia / Lar, 17

### KADETE MAILA, NESKAK

#### EMAITZA

Leizaran Horia-Egia	<b>21-40</b>
---------------------	--------------

#### ASTEBURUKO PARTIDA

<b>18:00</b>	Urola-Leizaran Horia / Lar, 17
--------------	--------------------------------

#### FORU ALDUNDIKO TORNEOA

##### EMAITZAK

Urnieta-Bidasoa Irun A	<b>24-18</b>
Aiala B-Leizaran Urdina	<b>28-25</b>

#### ASTEBURUKO PARTIDAK

<b>17:30</b>	Bidasoa Irun A-Urnieta / Lar, 17
---:--	Leizaran Urdina-Aiala B / Lar, 17

## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 15

## URNIETA Kontzertua

Organo entzunaldia, beste zenbait instrumenturekin batera.

*San Miguel eliza, 17:30.*

## URNIETA Odol ematea

Odol emaleen hitzordua.

*Anbulatorio zaharra, 18:30-20:30.*

## OSTIRALA 16

## URNIETA Dantza

Ludotekak hainbat tailer antolatu ditu Pazko Asterako. Izena emateko epea martxoaren 16an amaituko da.

Izen ematea: Urnieta.eus.

## ANDOAIN Dantza

"Hormek diote, on stage" Haatik konpainiaren eskutik.

Bastero, 21:30.

## URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren eskutik ipuin kontaketa saioa.

*Lekaio, 17:30.*

## URNIETA Zinegoak

Zinegoak. Film eskaintzaren xehetasunak 11. orrialdean.

*Sarobe, 19:00.*

## LARUNBATA 17

## ANDOAIN Musika

Klarinete Laukote jaialdia.

Informazioa: 5. eta 11. orrialdeetan.

*Bastero, 10:30.*

## ANDOAIN Dantza

Hormek esango luketena aitzaki hartuta, elkarbitzitako zailtasun eta arazoez hausnartzen duen dantza ikuskizuna da *Hormek diote on stage*. Haatik dantza konpainiaren azken lana da. Sarrera: 10 euro; gazte ordua: 3 euro.*Martxoak 16, ostirala. Bastero, 21:30.*

## DONOSTIA Mobilizazioa

"Denok batera erretiro-pentsio duinengatik", Andoaingo eta Urnieta elkarrekin babesarekin. Gazteei, pentsiodunei eta langileei deialdi berezia egin diete.

*Alderdi Eder, 18:30.*

## OSTEGUNA 22

## ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko batzaraldia.

Udaletxea, 19:00.

## LARUNBATA 24

## ANDOAIN Antzerkia

"Esto no me esperaba" izeneko antzezlanak, Zanguango Teatroa.

Sarrera: 12 euro.

*Bastero, 21:30.*

## IGANDEA 18

## URNIETA Zinegoak

Zinegoak. Film eskaintzaren xehetasunak 11. orrialdean.

*Sarobe, 19:00.*

Sarrera: doan.

## ZINEMA

## ANDOAIN

## BASTERO

## El Cuaderno de Sara

Larunbata, 17:

19:30; 22:00.

Ig., 18: 19:30.

Astelehena, 20:

19:30; 22:00.

## Sola en casa

Larunbata, 17:

17:00.

Igandea, 18:

17:00.

## La forma del agua

Larunbata, 24:

19:30; 22:00.

Ig., 25: 19:30.

## URNIETA

## SAROBÉ

## Bunch Oihaneko kuadrilla


Igandea 18:

17:00.

## Zinegoak

Martxoak 16-18:

19:00.



## SINOPSIK



## El cuaderno de Sara

Zuz.: Norberto López. Herr.: Espainia (2018). Iraupena: 115 minutu. Hizkuntza: Gaztelera.

## Galdutako ahizparen bila Kongora

Laurak urteak daramatza Kongoko oihanean galdutako ahizparen bila. Argazki batean

bere ahizparen irudi lausotua agertzen da. Laurak bere bizia arriskuan jarriko du bidaian.

## Sola en casa

Zuz.: Peter Lepeniotis. Herr.: Kanada (2017). Aktoreak: Becky G, Josh Peck, Tara Strong, Jeff Dunham... Iraupena: 89 minutu.

## Adierazpen askatasunaren balioa

Chloek eta bere amak ethez aldatu behar dute, eta lorategian gnomoak daude. Urteak daramatzate planeta babesten Troggs izeneko

izakietatik, non beren etxea okupatu duten beste mundu bateko ate baten bitartez. Mundua salbatzea izango da euren betebeharra.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de GipuzkoaORAIN  
GIPUZKOA

## Diaporama saioa Saroben

- Martxoak 20, asteartea: Andoni Urbistondo, "Bistare Bistarte". 18:30. Sarobe. Doan.
- Martxoak 21, asteazkena: Ane Arregui, "Made in Taiwan". 18:30. Sarobe. Doan.
- Martxoak 22, osteguna: Ane Arozena, "Erasmus Mexikon". 18:30. Sarobe. Doan.
- Martxoak 23, ostirala: Alain Moto, "Riding south Asia". 11:30. Sarobe. Doan.
- Martxoak 24, osteguna: Maddalen Kortajarena, "Etiopia". 18:30. Sarobe. Doan.
- Martxoak 25, ostirala: Urnieta Udalak bidaien diaporama lehiaketarako hautatu dituen ikus-entzunezkoak dira.

## ZORION AGURRAK



**ANDOAIN Ibai**  
Zorionak!! Martxoaren 8an 17 urte bete zenituen. Izan zoriontsu!



**ANDOAIN Julen**  
Zorionak eta gora Errealaaa! Julen Gurrutxaga Aizpuruak sei urte beteko ditu martxoaren 15ean.



**ANDOAIN Gurrutxaga Aizpuruak**  
Zorionak eta gora Euskalduna!



**ANDOAIN Maialen eta Iker**  
Inauteritan betetako urtebetetzeak lehengusu guztiak elkarrekin ospatuko ditugu!



**ANDOAIN Irune**  
Irune Amondarainek ere 5 urte bete zituen. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu sorgintxo!



**ANDOAIN Tio**  
Tiok 95 urte bete ditu! Egunero bizitzari txispa ateratzen dakizulako. Pilla pillata patata tortilla, maite zaitugu. Maialen, Iker, Ibai, Imanol eta Julen.



**ANDOAIN Edurne**  
Martxoaren 13an gure koadrilako beltzaranak 33 urte beteko ditu. Besarkada handi bat eta ea pizza batetara gonbidatzen gaituzun. Monika eta Txenler.



**ANDOAIN Clara**  
Orain zazpi urte izugarria izan zen zure etorrera. Gaur, oraindik gehiago disfrutatzen dugu zurekin!! Zorionak zure familia osoaren aldetik! Muxu pottolola.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

### www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

### diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

### Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

**Whatsapp bidez:** 619 16 35 37

## TELEFONO ZENBAKIAK

### ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.  
Bastero: 943 303 540.  
Udaltzaingoa: 943 300 819.  
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.  
Osasun zentroa: 943 006 670.

### URNIETA

Bertan: 943 008 000.  
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.  
Ertzaintza: 943 538 840.  
Osasun zentroa: 943 006 680.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

**Larunbata 17 eta igandea 18**  
DIAZ FERNANDEZ: Nagusia, 19.  
943 592 057. Andoain.

### URNIETA

**Larunbata 17 eta igandea 18**  
URRUTIA: Florida auzoa.  
943 557 738. Hernani.

### GAUEZ ASTEBURUAN

CASTILLA. 943 552 941. Hernani.

## AZOKA

### SALMENTA

Sastrakak kentzeko makina salgai. Zuhaitzak ebakitzeko makina salgai. Oso gutxi erabilia, oraindik zorrotz eta ondo aprobetxatzeko modukoak. 943 590 318.

### LANA

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059.

20 urteko ikasle euskalduna ordu batzuk lan egiteko prest. 634 441 353.

Aiurri. AZOKA: diseinua@aiurri.eus



## ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

# Eskelak Aiurriin: 90 euro

## ZOZKETA

# SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

### BERTSO SAIORAKO 2 SARRERA

Aiurriko harpidedunen artean Sahararen aldeko bertso saiorako bi sarrera zozketatuko ditu. Martxoaren 18ra bitarte parte har daiteke zozketan, aukera hauen guztien artean:

**Whatsapp bidez:** 619 163 537.

**E-postaz:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus).

**Telefonoz:** 943 300 732.

Hitz gakoa: 'Bertsoa'





## Ahaztutako haiek

Pasa den larunbatean aspaldiko partez itzuli nintzen amonarenera bazkaltzera (arbitrajeak, bilboko asteburuek... Amonarekin otordua izateko aukerak murrizten dizkirate) eta beti bezala, amona Maritxuren hitzek hausnarketara bultzatu ninduten. Kontu zaharren zalea naiz, eta aiton-amonek beti izan dute zerbait kontatzeko. Behin baino gehiagotan kontatu dizkidaten istorioak ere badira, baina haien ahotik entzuteaz ez naiz inoiz aspertuko.

6000 inguru gara gurean. Urnietan. Gaur egungo "personaiak" ezagunak ditugu guztiok. Baina garai bateko "mitikoak" gure aiton-amonen oroitzapenean galduko direnaren beldur naiz. 25 urtetik beherako (30 esatera ere ausartuko nintzateke) zenbatak dakite nor izan zen Pardakiko Hankamotza? Berak egindako protesiarekin mendian ahuntzen modura zebilen hankabakar hura, zenbat gaztek dute haren berri?

Edo eta Altxabarretik herriari hego haizea zetorrela abisu ematen zion gizon hartaz nork daki zerbait? Bentara jaitsi eta aitona Joxek sukaldeko leihotik emandako ardo-ur tragoxka batekin "etxera txintxo-txintxo" itzultzen zen gizon hura ezagutzen al dute gazteek?

## AZKENA



Andoaingo pentsiodunek ez dute etsitzen, eta asteleheneroko 12:00etako hitzorduari eusten diote. AIURRI

# Duintasunaren aldeko gizarte olatua

Gipuzkoako pentsiodunen elkarteek manifestazioa antolatu dute Donostian, larunbat honetarako; Alderdi Eder parketik arratsaldeko 18:00etan abiatuko da. Andoaingo eta Urnietako pentsiodunek gizarte osoari agertzeko deia luzatu diete

### Erredakzioa ESKUALDEA

Pentsio duinen aldeko elkarretaratze jendetsua egin zuten Andoaingo Goikoplazan, joan zen astelehenean. Andoaingo pentsiodunek ez dute etsitzen, eta asteleheneroko 12:00etako hitzorduari eusten diote. Era horretan, astez aste, geroz eta herritar gehiago dira pankartaren atzean biltzen ari direnak,

Espainiako gobernuari eta politikoei bizimodu duinago bat merezi dutela aldarrikatzeko.

Elkarretaratzeak Espainiako estatuko herri askotan azken hilabeteetan gertatzen ari den fenomeno sozialari erantzuten dio. Astelehenero, argazki berbera errepikatzen ari baita: pentsiodunak mobilizatzen ari dira, kalera ateratzen ari dira

pankartaren atzean jarrita, murrizketen eta prekarietatearen aurka eta duintasunez bizi ahal izatearen alde.

### Larunbatean, Donostian manifestazioa

Gipuzkoako pentsiodunen elkarteek manifestazioa antolatu dute Donostian, larunbat honetarako; Alderdi Eder parketik

18:00etan abiatuko da. Deitzaileek "Denok batera erretiro-pentsio duinengatik" lema zabaldu dute. Izan ere, helarazi nahi duten mezua da pentsio baxuen arazoa ez dagokiela soilik pentsiodunei; egun langile eta gazte direnei ere eragingo diela etorkizunean.

Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen elkarteek pentsio duinak eskatzen dituzte. Besteak beste, Europako Gutun Sozialak zehazten duen gutxieneko kopurua ezartzea (hots, 1.080 euro), gobernuak aplikatutako murrizketen erruz azken urtetan galduko eros ahalmena berreskuratzea, eta pentsioak KPI-aren arabera gaurkotzea.

Andoaingo elkarretaratzearen bultzatzaileek eta Duintasuna elkarteak bat egin dute Donostiako manifestaziorekin. Urnietako Dena Berri elkarteak ere bazkideak animatu ditu Donostiara hurbil daitezen.

## TXOTX 2018



### AIURRIKO HARPIDEDUN IZATEAREN ABANTAILAK

#### Sagardo route

943 336 811  
Astigarraga

#### Mizpiradi

943 593 954  
Andoain

#### Sarasola

943 690 283  
Asteasu

#### Iguarte

658 435160  
Usurbil

#### Larre-gain

943 555 846  
Ereñozu-Hernani

#### Gaztañaga

943 591 968  
Andoain

#### R. Zabala

943 690 774  
Aduna

#### Petritegi

943 457 188  
Astigarraga

#### Hotel K10

943 337 357  
Urniet



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Harpidedun egin zaitetz eta etxean jasoko duzu: 943 300 732 [idazkaritza@aiurri.eus](mailto:idazkaritza@aiurri.eus)